

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

91

1048/2024 EBAZPENA, abenduaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Proiektu Korporatiboetako Ataleko Buru lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzan, Azpiegituren Zuzendariordetzan Instalazioen eta Ekipamenduen Zerbitzuan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzako Proiektu Korporatiboen Ataleko Buru lanpostua hutsik dago, Azpiegituren Zuzendariordetzan, Instalazioen eta Ekipamenduen Zerbitzuan. Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Giza Baliabideen Zuzendaritza honek erabaki du deialdi publikoa egitea, lanpostu hori izendapen askez betetzeko. Hona hemen horretarako atxikipenak eta oinarriak:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Lanpostuaren atxikipena.

Atxikipena: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritza, Azpiegituren Zuzendariordetza, Instalazio eta Ekipamenduen Zerbitzua.

Lanaldi zatitua: Vitoria-Gasteiz.

Hizkuntza-eskakizuna: 3. HE (derrigortasun-data: 2024-02-22).

Bigarrena.– Lanpostuaren eginkizunak.

2.1.– Atal berri bat sortzea, erakunde sanitario integratuek modu autonomoan egiten dituzten jardueren zati handi bat korporatibizatzeke. Helburua da eraginkortasun handiagoa lortzea Osakidetza osoaren funtzionamenduan.

2.2.– Aukera- eta hobekuntza-arloak zehaztea Azpiegituren Zuzendariordetzaren eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzaren prozesuetan eta proiektuetan.

2.3.– Azpiegituren Zuzendariordetzan erakundearen ikuspegi korporatiboaz arduratuko diren teknikariak gidatzea. Hasiera batean, efizientziaren, jasangarritasunaren eta ingurumenaren eremuetan lan egingo da.

2.4.– Azpiegituren Zuzendariordetzan Bulego Teknikorako sortzen diren lantaldeak antolatzea. Horien artean nabarmentzekoak dira mantentze-lanak eta bere kudeaketa propioa.

Hirugarrena.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupeko langilea, funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea; eta plaza jabetzan edukitzea A1/A2 lanbide-taldean.

- b) Gutxienez 3 urteko lan-esperientzia izatea administrazio publikoan, A2 lanbide-taldean.
- c) Industria-ingeniariaren titulu akademikoa edo egungo baliokidea izatea.
- d) Uztailaren 186/2005 19 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betekizunak betetzea.

Laugarrena.– Kontuan hartuko diren merezimenduak.

- Hizkuntzen ezagutza: ingelesa - 3. hizkuntza-eskakizuna.
- Egiazta daitezkeen proiektuak kudeatzeko ezagutzak, bai maila akademikoan (PMIren aitopena, Project Manager Professional edo baliokide gisa) bai maila praktikoan.
- Energia berriztagarriari buruzko ezagutzak eta bigarren oinarrian adierazitako lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten beste batzuk.
- Esperientzia frogagarria izatea diziplina anitzeko lantaldeen kudeaketan.
- Esperientzia izatea administrazio-espedienteen kudeaketan.

Halaber, lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitezkeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

Bosgarrena.– Euskararen ezagutza.

Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

Seigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Administrazio Publikoan Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatzen den moduan ere aurkeztu ahalko dira.

Interesdunek Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), datu pertsonal guztiekin eta «curriculum vitae» dokumentatuarekin batera.

Dokumentazioak honelakoa izan behar du:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada, gorkio, lan-legepeko kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden edukiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

Zazpigarrena.– Balorazio Batzordea.

Balorazio Batzorde bat eratuko da, eta batzordeburua Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo hark eskuordetzen duena izango da. Hauexek izango dira Balorazio Batzordeko kideak: Ekonomiako eta Finantzako zuzendaria, Azpiegituren zuzendariordea eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako Goi-mailako Teknikari bat (azken hura idazkaria izango da).

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoa, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan zerrendatuko dira aurkeztutako izan-gaiak, gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego), eta lanpostua haietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak.

Zortzigarrena.– Hautaketa-prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAAn argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

Bederatzigarrena.– Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpenaren bidez emango zaio amaiera honen bitartez hasitako prozedurari (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), eta ebazpen hori Osakidetzako intranetean eta webgune korporatiboan argitaratuko da. Ebazpen horrek EHAAAn argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, bertan besterik xedatu ezean.

Hamargarrena.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.